AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3510

AGINDUA, 2014ko uztailaren 14koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, M.ª Angeles Pérez de Mendiola Cámara andrea Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkariaren kargutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– M.ª Angeles Pérez de Mendiola Cámara andrea Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkariaren kargutik kentzea (520010 kodea, 103 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargutik kentze honek 2014ko abuztuaren 6tik aurrera hartuko du indarra.

Hirugarrena.– Administrazio bideari amaiera ematen dion Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean, eman duen organoaren aurrean; edo administrazioarekiko auzi-errrekurtsoa Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 14a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.